

NOLA IRITSI BILBO, IRUN ETA HENDAIARA

Hegazkinez bazatoz

Bilbao Airport (BIO)

Bilboko aireportua nazioarteko aireportua da, Europako hiri nagusiekin lotura zuzena duena; besteak beste, Madril, Bartzelona eta Parisekin aire-konexio erregularrak eskaintzen ditu.

Bilbo hirigunera joateko

- Aireportutik zuzenean Bizkaibus A3247 linea erabil daiteke → <https://www.bizkaia.eus/eu/web/bizkaibus>
Helmuga: Bilbao Intermodal
Bidaia: 20–30 minutu
- Bilbon mugitzeko: metroa, autobusa eta tranbia → <https://www.metrobilbao.eus/> / <https://www.bilbobus.eus/>

Irun / Hendaia aldera joateko

- Bilbotik autobus edo trena hartu daiteke.
- Irun eta Hendaia elkarren ondoan daude: oinez, Euskotren Topoarekin edo tokiko garraioarekin konektatuta daude
- Laguntza behar baduzu: antolatzaileekin harremanetan jarri

San Sebastián Airport (EAS)

Donostiako aireportua Hondarribian kokatua dago eta Madril eta Bartzelonarekin konexioak ditu.

Irun / Hendaia joateko

- Ekialdebus lineak → <https://www.lurraldebus.eus/>
 - Aireportua ↔ Hondarribia ↔ Irun (15–30 min)
- Hendaia: Irunetik oinez edo trenez (Euskotren Topo)

Bilbora joateko

- Donostiara joan behar da eta bertatik Bilbora:
 - E20 / E21 linea: Aireportua → Donostia
 - Donostiatik: DO01 autobus zuzena → Bilbao Intermodal

Biarritz Airport (BIQ)

Hendaia / Irunera joateko

- TXIK TXAK autobusa: <https://www.txiktxak.fr/>
 - Bi linea hartu behar dira: 3. linea: aireportua → Biarritz / 4. linea: Biarritz → Hendaia
- Trena: Biarritz → Hendaia
- Irun → Hendaia: oinez edo Euskotren Topoz

Bilbora joateko

- Aireportutik FlixBus / BlaBlaBus hartu dezakezu Bilbora→
<https://www.flixbus.es/>

Autobus hauek aireportutik edo inguruko herrietako autobus geltokietatik (Baiona adibidez) ateratzen dira eta zuzenean Bilboko Intermodal geltokira doaz.

- Beste aukera bat Hendaia edo Irun bitartez, Donostiara iristea da. Bertatik, autobusa hartu daiteke: (Pesa / Lurraldebus DO01 → Donostia → Bilbo (Intermodal geltokia))
- Irun–Hendaia–Bilbo arteko desplazamendua kudeatzeko laguntza behar baduzu, jar zaitez antolatzaileekin harremanetan, garraioa antolatzen eta kudeatzen lagun diezazuten.

Adolfo Suárez Madrid–Barajas Airport (MAD)

- **Bilbo:** zuzeneko hegaldiak daude Bilbao-ra (1 ordu inguruan). Bestela, autobus zuzena (ALSA) edo trena (Renfe) erabil daitezke, 4–5 ordu inguruan.
- **Irun / Hendaia:** ez dago aireportutik zuzenean; normalean Donostiara joan (hegazkina edo trena), eta handik Euskotren edo autobusez Irun / Hendaia (Irun / Hendaye).

Barcelona–El Prat Airport (BCN)

- **Bilbo:** hegaldi zuzenak daude Bilboko Aireportura (1 ordu 15 min). Bestela, AVE trena edo autobusa hartu daiteke.
- **Irun / Hendaia:** trenez edo autobusez Donostiara (5–6 ordu), eta handik Euskotren edo Renfe bidez muga zeharkatu.

Paris Charles de Gaulle Airport (CDG)

- **Bilbo:** hegaldi zuzenak daude Bilboko aireportura (1 ordu 45 min inguru) edo autobus zuzena (8–10 ordu).
- **Hendaia:** Aireportutik Montparnasse geltokira joan zaitezke eta handik TGV (trena) zuzena hartu daiteke Hendaia. Bidaia oso eroso da eta 4–5 ordu inguru irauten du.
- **Irun:** Hendaian jaitsi ondoren, oinez edo tren labur batekin Irunera pasa daiteke, muga daudelako eta distantzia oso txikia delako.

Paris Orly Airport (ORY)

- **Bilbo:** Ez dago hegaldi zuzenik. Paris Orly (ORY) aireportutik Bilbora joateko, lehenik Paris erdialdera joan behar da Orlyval eta RER erabiliz (trena) edo metroa erabiliz, eta handik autobusa (FlixBus) hartu daiteke. Bestela, konexio hegaldi bat hartu daiteke Pariseko Charles de Gaulle Airport (CDG) aireportutik Bilboko Aireportura (BIO).
- **Hendaia:** Orlytik Paris Montparnasse geltokira joan eta handik TGV (trena) zuzena hartu daiteke Hendaia. Bidaia oso eroso da eta 4–5 ordu inguru irauten du.
- **Irun:** Hendaian jaitsi ondoren, oinez edo tren labur batekin Irunera pasa daiteke, muga daudelako eta distantzia oso txikia delako.

TRENEZ BAZATUZ

Bilbo-Abando Indalecio Prieto

- Bilbao-Abando Indalecio Prieto Bilboko tren-geltoki nagusia da.
- Renfe tren-sarearen bidez lotuta dago, eta handik Madril,artzelona eta Espainiako beste hiri nagusietara joan daiteke.
- Geltoki honetatik Irun Railway Station geltokira iristeko, ohikoena Donostiatik igarotzea da. Lehenik Donostiara bidaiatzen da, eta bertan trenez aldatuta Irunera jarraitzen da. Guztira, bidaiak 2,5 eta 3 ordu arteko iraupena izan ohi du.
- Irunera iritsita, Hendaia oinez edo tren labur baten bidez igaro daiteke.

Irun Railway Station

- Iruneko geltokia Euskal Herriko tren-nodo estrategikoenetako bat da.
- Hemendik lotura zuzenak daude Donostiarekin, Bilborekin, Madrilekin etaartzelonarekin.

- Hendaiaiko konexioen bidez, Frantziako abiadura handiko sarearekin (TGV) lotu daiteke, eta handik Frantziako hiri nagusietara iritsi.
- Hendaiaira oinez, Euskotrenez edo tokiko tren-zerbitzuen bidez joan daiteke.

Hendaia - Gare d'Hendaye

- Hendaiaiko geltokia Frantziako tren-sarearen ate nagusietako bat da Euskal Herrian.
- Pariserako tren zuzenak daude, eta baita Frantziako beste hiri askotarako loturak ere.
- Irungo konexioen bidez, Espainiako tren-sarearekin lotura erraza eskaintzen du.
- Muga oso gertu dagoenez, Irun eta Hendaia arteko joan-etorriak azkarrak eta erosoak dira.

BILBO – IRUN – HENDAIA TREN LOTURAK

Bilboko, Irungo eta Hendaiaiko geltokiek Euskal Herriko eta nazioarteko tren-mugikortasunaren ardatz nagusietako bat osatzen dute.

- Bilbo eta Irun artean R zerbitzuek egiten dute lotura, normalean Donostiatik igaroz.
- Irun geltokia Espainiako eta Frantziako tren-sareen arteko trantsizio-puntu nagusia da.
- Hendaiaitik aurrera, Frantziako TGV sareak Paris, Bordele eta beste hiri nagusiak lotzen ditu.
- Bilbo eta Hendaia artean ez dago tren zuzenik, baina konexio erraza dago honako ibilbidearen bidez: **Bilbo → Donostia → Irun → Hendaia**.

AUTOBUSEZ BAZATOK

Bilbo- Bilbao Intermodal

- Bilbao Intermodal Bilboko autobus-geltoki nagusia da.
- Hemendik estatuko zein nazioarteko autobus-lineak ateratzen dira.
- Lotura zuzenak daude Madril, Bartzelona, Donostia eta Euskal Herriko beste hainbat hirirekin.
- Zerbitzu nagusiak honako enpresa hauek eskaintzen dituzte: [ALSA](#), [FlixBus](#) eta [PESA](#).

Irun Bus Station

- Irungo autobus-geltokia mugako garraio-gune garrantzitsua da.

- Donostia, Bilbo, Baiona, Bordele eta Frantziako hegoaldeko beste hiri batzuekin lotura eskaintzen du.
- Hendaia oso gertu dagoenez, bi hirien arteko konexioa maiz oinez edo autobus labur baten bidez egiten da.

Hendaia - Hendaye Bus Station

- Hendaia autobus-geltokia Ipar Euskal Herriko autobus-sarearen puntu garrantzitsua da.
- Baiona, Bordele eta Frantziako beste hainbat hiritarako loturak eskaintzen ditu.
- Era berean, Irun eta Donostiarekin ere konektatuta dago.
- Muga hurbil dagoenez, mugaz gaindiko joan-etorriak oso ohikoak dira.

BILBO – IRUN – HENDAIA AUTOBUS LOTURAK

Bilbao Intermodal, Irungo autobus-geltokia eta Hendaia autobus-geltokia Euskal Herria mendebaldetik ekialdera lotzen duen mugikortasun-ardatz nagusiaren parte dira.

- Bilbo eta Irun artean autobus-lotura zuzenak daude, batez ere [PESA](#) eta Lurraldebus sareen bidez. Zerbitzu batzuek Donostian egiten dute geldialdia.
- Irun eta Hendaia artean lotura oso azkarra eta erraza da; oinez, autobusez edo trenez igaro daiteke alde batetik bestera.
- Bilbo eta Hendaia artean ez dago autobus zuzen nagusirik; normalean Donostia edo Irun erabiltzen dira tarteko konexio gisa.

Garraio publikoa (nola mugitu Bilbon, Irunen eta Hendaian)

Bilbo

Bilbon mugitzeko garraio publikoa oso garatua da:

- Metroa da sistema nagusia eta hiria zeharkatzen du.
- Tranbia erabil daiteke eta erdiguneko gune nagusiak lotzen ditu.
- Bilbobus sarea auzo guztietara iristen da.

Euskalduna Jauregira iristeko:

- Metroa (L1 edo L2): “San Mamés” geltokian jaitsi eta 3–5 min oinez.
- Tranbia (Euskotran): “Euskalduna” geltokia.
- Bilbobus: hainbat linea San Mamés / Abando ingurutik igarotzen dira.

Irun

Irun-n garraio publikoa txikiagoa da baina oso eraginkorra:

- Hiri barruan autobus lineak daude: DBUS / Lurraldebus lineak.

FICOBA Exhibition Centre

- Irun Railway Station (IRN)-tik: 10–15 minutu oinez
- Lurraldebus autobusa (Donostia–Irun linea): “Ficoba / Bentak” geldialdia: 2 minutu oinez
- Trena: Euskotren / Renfe: “Irun Ficoba” geltokia: minutu batera oinez

Hendaia

Hendaia barruan mugitzeko, gehienbat oinez egiten da, hiri txikia delako eta puntu nagusiak (geltokia, erdigunea, hondartza eta muga) elkarrengandik oso gertu daudelako.

Horrez gain, bada Txik Txak autobus sare txikia, Hendaia barruko eta inguruko herrietara joateko erabiltzen dena, baina ez da maiz erabiltzen hiri barruan.

Borderline Fabrika:

- Hendaiaiko tren geltokian kokatuta dago.
- Trena: “Hendaiaiko geltokia / Gare d’Hendaye” geltokia: Borderline Fabrika bertan dago.
- Autobusa (Txik Txak autobus sarea): “Hendaiaiko geltokia / Gare d’Hendaye” geltokia: minutu batera oinez

IRUN – HENDAIA LOTURA

- Irun ↔ Hendaia = oinez 5–10 minutu
- Euskotren (trena) = “Irun Ficoba” geltokiaren eta “Hendaiaiko geltokia / Gare d’Hendaye” geltokiaren lotura zuzena
- Lurraldebus + Txik Txak autobusak = muga inguruko autobus sare integratua

Informazio gehiago / Más información / More Information / Plus d'informations

Aireportuak / Aeropuertos / Airports / Aéroports

- [Bilbao Airport \(BIO\)](#)
- [San Sebastián Airport \(EAS\)](#)
- [Biarritz Pays Basque Airport \(BIQ\)](#)
- [Vitoria Airport \(VIT\)](#)
- [Madrid-Barajas Airport \(MAD\)](#)
- [Barcelona-El Prat Airport \(BCN\)](#)
- [Paris Charles de Gaulle Airport \(CDG\)](#)
- [Paris-Orly Airport \(ORY\)](#)
-

Trenak / Trenes/ Trains / Trains

- [Renfe](#)
- [Euskotren](#)
- [SNCF Connect](#)

Autobusak / Autobuses / Buses / Autocars

- [Bilbao Intermodal](#)
- [ALSA](#)
- [FlixBus](#)
- [PESA](#)
- [Lurraldebus](#)
- [Txik Txak](#)

Garraio publikoa / Transporte público / Public transport /

- [Metro Bilbao](#)
- [Euskotren / Euskotran](#)
- [Bilbobus](#)
- [DBUS](#)
- [Lurraldebus](#)
- [Txik Txak](#)